

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Suhuskune

Aurkibidea

Udalerria: Suhuskune

Sarrera



Nafarroa Behereko erdialdeko udalerria, Iholdiko kantonamenduan. Suhescun du izen ofiziala. Mugak: iparraldean, Iholdi eta Irizarri; ekialdean, Landibarre eta Ainhize-Monjolose; mendebalean, Irizarri; hegoaldean, Jatsu eta Ainhize-Monjolose. Laborantza (artoa, garia, landare lekadunak) eta abere hazkuntza (ardi, behi eta zerri azienda) dira ekonomia jarduera nagusiak.

Argazkia: eke.org

- **Biztanleak:** 187
- **Euskaldunak:** %60,49

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **5**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Agustin Mendizabalen fondoa
- Euskal Herriko Ahotsak
- IKER taldea

Hizlariak

Peio Etxemendi (1950)



1950-01-13an jaioa, Suhuskuneko Haizpea etxean, eta Bainonan bizi izandakoa. Aita Lekunberrikoa (Garazi eskualdea) eta ama suhuskundarra zituen, eta denda baten jabe ziren. Bera bost senidetan gehiena dugu. Seminario handian ibilia, eta ondoren autobus-gidari izana da bere bizitza osoan; enpresako sindikatuan parte-hartze zuzena izan du hogeitaz urtez. Euskararen alde lana egindakoa da, gainera.

SUH-001 Hizlari ezezaguna (1931)

André Ouret (1931)



André Ouret Suhuskunen sortu zen, “Elizagaraia” etxean, 1931n. Aita bertakoa zuen, eta ama Lasarra (Ouret zuen abizena hark ere). Laborari etxea zuten, baina aitak etxetik kanpo ere egiten zuen lan (Purpan eskolan ibili zen). 4 haurride ziren. Aitak diabeta zuen eta gazterik hil zen, Andrék 14 urte zituelarik. Ikasketak utzirik, André etxean lanean hasi zen, amarekin. Haur denboran Suhuskuneko bizia nolakoa zen kondatzen digu: bestak, xerri hiltzea, urzotegiak, arto xuritzea, eskola, katexima. Soldadogoa Belfort-en egin zuen. Hortik sartu eta ikasketak berriz hasi zituen, Garroako eskolara joanez (Lekornen). Urte batez eskolara joan zen Lyon hirira, “moniteur” izateko. Eta 3 urtez Garroako eskolan irakasle egon zen ondotik. Ondotik 10 urtez laborantxa aholkulari bezala lan egin eta Hazparne eta Donibane Garazi aldean, Donibane Garaziko kooperatifako zuzendari bilakatu zen 1970ean, 20 urtez, erretreta hartu arte. 1966an Bankako Marie-Angèlerekkin ezkondu zen eta 2 haur izan zituzten. Euskaldun Gazteria mugimenduko kide zen André gazte denboran. Aljeriako Gerlan parte hartu behar izan zuen eta han egon zen urte batez. Han bizituak aipatzen ditu ere.

Kaïet Ouret (1929)



Suhuskunen sortua. Kantaria zaletasunez.; Suhuskuneko xantrea (azken xantreetarikoa izan da). Irisarriko [Peio Soulé](#)-rekin batera egin zitzaion elkarriketa. Argazkian, ezkerrekoa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com